

ILUSIOZ ETA ERRONKAZ BETETAKO IKASTURTEA

Ikastolako hezkuntza-komunitate osoak, etapa guztietako ikasleek esperientzia, galdera, ikasketa eta balorez betetako ikasturte emonkorra izan daien konpromisoa hartu dau.

GEHIAGO

**EGOKITZEKO
ALDIA**

● **ZUZENDARIAREN
AGURRA**

● **HOBEEKUNTZA
LANAK**

Ilusioz eta erronkaz betetako ikasturtea

Begoñazpi Ikastolan ikasturtea ilusioz eta erronkaz beteta hasi dogu. Ikastolako hezkuntza-komunitate osoak, etapa guztietako ikasleek esperientzia, galdera, ikasketa eta balorez betetako ikasturte emonkorra izan daien konpromisoa hartu dau.

Gazteenen lehen orduak Begoñazpi Ikastolan

Begoñazpi Ikastolan, urte biko umeek Ikastolako lehen egunak konfiantzaz eta segurtasunez emoteko hasi behar daben egokitze aldiari ekin deuse.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Gure zuzendaria dan Bego Bañuelosek ongi etorria emon deusku



Etapa barri honi ilusio handiz ekingo deusagu. Ikasi, hazi eta gozatzeko espaziorik onenak sortzen lagunduko deuskuen ikasgelak atonduta, proiektu barriak sortuta eta hobekuntzak eginda prest gagoz ikasturtea hasteko. Gure zuzendariak, Begok, ikasturteari ondoetorria emoteaz gain, zenbait barri be adierazi deuskuz.



2026/27 ikasturteari begira, Begoñazpik espazioak eta instalazioak hobetu dauz

Begoñazpi Ikastolak ikasleei eta hezkuntza komunitate osoari espazio egoki eta funtzionalagoak eskaintzeko asmoz, udako oporraldia instalazioetan lanak eta hobekuntzak egiteko erabili dau. Barrikuntza nagusietako bat, irakurzaletasuna sustatzeko ezezik, ikasleei ikasketetan laguntzeko be espazioa sortzea izan da, hau da, Haur eta Lehen Hezkuntzarako liburutegia egin eta zabaltzea.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



**IKASTURTEARI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA
IKASTOLAKO WEB-ORRIALDEAN ETA SARE SOZIALETAN
IZANGO DOZUE**

www.begonazpi.org

94 400 53 00

